



Pardiola nekazal etxea Osiñaga bailaran, Oindi mendi azpian. Lehengo baserria berrituta bi urte daramazki irekita Pardiolak.

HERNANIKO OSTATUAK

Txintxua hotela

Zikuñaga 72 - Tel: 943 33 36 80
20 gela (40 plaza)

Zinko Enea pentsioa

Nagusia 57 - Tel: 670 39 08 97
7 gela (15 plaza)

Sansonategi nekazal etxea

Martindegi - Tel: 943 33 04 29
5 gela (10 plaza)

Belazarte nekazal etxea

Pagoaga 10 - Tel: 943 33 20 73
5 gela (10 plaza)

Pagoaga nekazal etxea

Pagoaga 1 - Tel: 943 33 20 73
3 gela (8 plaza)

Pardiola nekazal etxea

Osiñaga 29 - Tel: 943 33 36 79
8 gela (12-15 plaza)

Hernanin ostatu hartzen duten turista gehienak Donostiak erakarrita etortzen dira

■ Aurten ere katalanak, valentziarrak eta madrileñoak dira gehien bat Hernanira datozen turistak.

■ laz baino mugimendu gutxiago nabaritzen dutela esaten dute Hernaniko ostatuetoako arduradun gehienek.

■ Turistek gustuko dutena: Donostia eta kostaldeko herriak, jendea atsegina dela, eta natura eta parajeak.

OPOR garaia den honetan, jende mugimendu handia izaten da eta kaleak beste herrialde batzuetako bisitariz betetzen dira. Hernanin ere antzeko zerbait gertatzen da eta herrian dauden 6 ostatuetoan inon baino hobeto dakite hori. Hernaniko 6 ostatuetoatik 4 nekazal etxeak dira: Pagoaga, Belazarte, Sansonategi eta Pardiola. Beste biak Txintxua Hotela eta Zinko Enea Pentsioa dira. Bertako nagusiek aurtengo turista mugimenduari buruzko balorazioa egin digute, eta bakoitzak bere errealitatea badu ere, bat datoz gehiengan.

Katalanak batez ere

Aurtengoan ere, Hernanin ostatu hartu duten turisten gehiengoa Kataluniatik, Valentziatik eta Madriletik etorri dira, aurreko urteen antzera. Horretaz gain, urrutiaotik datozen turistak ere badaude, italiarrak, alemanak, frantziarrak eta ingelesak adibidez. Europatik kanpo Ameriketatik eta Koreatik etorritako turistaren bat ere ba omen dago Hernanin.

Ostatuetoako arduradunek esandakoaren arabera, Udan batez ere familiak etortzen dira Hernanira, seme-alabak

dituzten 30-40 urte bitarteko bikoteak.

Udan batez ere
familiak etortzen
dira Hernanira,
seme-alabak
dituzten 30-40 urte
arteko bikoteak

Donostiak erakarrita

Turista mugimendu handiena abuztuaren lehenengo bi aste-

etan izaten da, Donostiako Aste Nagusia garai horretan izaten baita. Hernanira etortzen diren turista askok ez dute Hernanirenganako interes berezirik, hona etortzen badira Donostiagatik, edota dena eskura dutelako izaten da. Gutxi gorabehera 3-7 egunetarako etortzen dira eta Hernani ezagutzeko egun bat hartzen dute. Hortik aurrera ingurua ezagutzera ateratzen dira, Donostia, Bizkaiko eta Gipuzkoako kostaldea eta Iparraldea bisitatzen dituzte normalean.

Gustukoen dituzten gauzak

zeintzuk diren galdetu ezker aipatzen dutena, Donostiako edifizioak eta hondartzak, kostaldeko herriak, jendea atsegina dela, edota Hernaniko alde zaharra eta Txillida Leku izaten dira.

Lagunei gomendatu

Batzuk hurrengo urteetan itzuli egiten dira, baina, gehienetan dagoeneko Hernanin izandako lagun bategomendatuta etortzen dira. Hala ere, aurreko urteetan baino turismo gutxiago dabilela esan digute ostatuetoako arduradun gehienek. □

Telemar

Itxastele, S.L



RENOVE PLANA



Egundoko **ESKAINTZAK**
Etxe tresnatan eta
mugikorretan.

Telemar Itxastele - Elkano kalea 13 - Tel.: 943 55 33 99 - 943 33 00 60



Astigarragako Udala

**G A U R
ASTIGARRAGAN**

KALEZ KALE Eren

ZANGA

kale antzerkia

Begoña Bilbao, Jorge Santos,
Jose Kruz Gurrutxaga
eta Alfonso Diez
22:30etan

Santio jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!
Etorri festara eta ondo pasa.

UDAKO IKASTAROAK AEK-N



Bi diskorekin nola 'skratxeatu' erakutsi zuten asteazkeneko klasean.

Musika beltza eta elektronikoa ezagutu, eta sortzeko saiakeraren bat ere egin zuten

■ Selektah Sound System taldeko kideek eman zuten ikastaroa, lehengo astean.

MUSIKA beltza eta elektroni-koari buruzko ikastaroa izan da lehengo astean AEK euskaltegian. Nondik sortu den, zer ezagutzen dugun eta dauden musika beltz estilo desberdinak azaldu zituen Aritzek astelehenean. Astearte-ordenadore bidez musika nola egin erakutsi zieten Harryk: programa batekin kanal bakoitzean instrumentu bat nola sartu eta gero musika baseak nola egin eta nola retokatu. Saiatu egin zen, baina, apenas denek erabat ulertu zuten.

Asteazkenean, binilozko diskoekin *eskratxeatzen* erakutsi zien Eskratx jaunak: bi disko batera jarrita musika nola egin. Disko bat base bezala utzi behar omen da eta bestearekin egin behar dira apainduriak. Ondorenean, praktikan jarri zuten ikasleek ikasia eta ostegun gauean Goiz Argi tabernan probatzeko aukera izan zuten



Ikasle bat teoria praktikan jartzen.

ausartenek.

Honenbestez bukatu dira AEK-k udarako antolatutako

dituen ikastaroak. Hurrengoak irailean izango dira eta kurtsua urrian hasiko da. □

SANTIOAK ASTIGARRAGAN ETA ARANON

Santa Ana egunez, Euskal festa Astigarragan eta jubilatutako eguna Aranon

EGITARAUA

GAUR, ARANON

10:00 Goiz soinua trikitilarietara.
11:00 Herri meza.
-Ondoren hamaiketako jubila-tuentzat 'San Roke' elkartean.
12:30 Afizionatuen pelota partidua.
14:00 Jubilatuen bazkaria Gure Ametsa ostatuan.
Ondoren bertsolariak: Imanol Lazkano eta Joxe Agirre.
Arratsaldean zehar trikitixa.
17:00 Pelota txapelketako finalak.
22:00 Ohiko oilasko jatea.
Gaupasa Etxabe Anaiekin
Goizaldean alkoholemia proba eta baratzuri zopa aukeran!

GAUR, ASTIGARRAGAN

10:00 Iturengo Zantantzarrak.
11:30 Artisautza erakusketa, Foru Plazan.

11:30 Sagardo probaketa, Foru Plazan.
12:00 Idi-dema, Foru Plazan.
12:00 Goringo taldearen Tristeak Kontsolatzeko Marmita ikuskizuna. Apeztegi Plazan.
13:00 Jesus M^o Irazu eta Aitor Mendiluze bertsolariak, Foru Plazan.
14:30 Gazteen bertso-bazkaria Tomas Alba Kalean.
17:30 Astigarragako I. Kros Herrikoia-irteera Kale Nagusitik.
18:00 Zuhaitz Taldearen eskulan erakus-keta.
18:00 Aire Aire trikitixarekin kalejira.
18:30 Herri kirolak. Aizkolariak eta auzoen arteko herri kirol desafioa.
19:30 Kalek Kale taldearen Zanga kaleko antzerkia Kale Nagusian.
20:30 Egan taldearekin dantzaldia Joseba Barandiaran Plazan.
00:00 Oria Txarangaren irteera.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

►Taxiak: 943 550093
►Udaltzaingoa: 943 333288
►DYA: 943 464622
►Autobusak: 943 556662
►Anbulatorioa: 943 006666
►Jokalaritza anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

►Egunez: Bulnes Florida auzoa ☎ 943 557738
►Gauez: Tanco Urnieta. San Juan 36 ☎ 943 550942



Jabier Yanci Urtasun

Uztailaren 22an hil zen 50 urte zituela

Zure lagunek gogoan izango zaitugu beti

Juan Mari Torrecilla Etxeberriaren familiak



I. URTEBETETZEA

Domi Luloaga Sarriegi

2003ko uztailaren 11n hil zen

Domiren senitartekoez, ezagutu zenuten guztioi gonbidapena luzatzen dizuegu, bere heriotzaren lehenengo urteurrenean eskainiko diogun mezara etor zaitezten.

Urtebetetze meza **bihar, igandea, uztailak 27**, goizeko 10:30etan, Hernaniko San Joan bataiatzailearen parrokian.

Hernanin, 2003ko uztailaren 26an.

IRAGARKI MERKEAK

Bi neska behar ditugu Hernaniko taberna batean sukalde eta zerbitzari lanak egiteko. 25 urtetik gorakoak eta esperientziarekin. Deitu: **943 55 26 94** (Nekane 10:00-15:00 eta 17:30-23:00)

Hernaniko Pelukeria batean estetika lanak egiteko pertsona bat behar degu. Deitu: **943 55 63 68**

Hernaniko taberna batek pertsona bat behar du lanerako. Kondizio onak. Interesatuak deitu: **660 982 145** edo **678 058 003**.



Antziola-Motor Salmenta eta taller zerbitzua



Ford Mondeo

3 aukera ezberdin,
gusto ezberdinentzat:

- 4 ateko elegantzia
- 5 ateko deportiboa
- Wagon familiarra

Etorri, ikusi eta aukeratu.

Antziola auzoa 12 - Hernani - Tel.: 943 55 57 72
Ordutegia: astean zehar 9-13 eta 16-20 - Larunbatean 10- 13



Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak

GAUR 16:00ETATIK AURRERA

ERREMONTE JAIALDIA:

1. partidua: Juaristi - Agirrezabala / Zalakain - Ion
2. partidua: Ezkurra - Urretabizkaia II / Altuna II - Eizagirre
3. partidua: Agirresarobe - A. Lekunberri / Iribarren - Aizpuru
4. partidua: Zeberio I - Badiola / Matxin III - Aizpurua II